Jauregi: «Programa kontserbatzaile eta nazionalista dute EEk eta EAJk»

Sozialistek hiru baldintza jarri zituzten gobernu hirukoitzean egoteko

Ramon Jauregik «Programa nazionalista eta kontserbatzailetzat» jo zuen EAJk eta EEk eskaini ziotena. Bi alderdiok «Malgutasunik eta aldaketa nahirik» ez agertzeak ekarri zuen Gasteizko gobernu hirukoitzerarako negoziaketak haustea, sozialistaren esanetan.

Z.ZAMAKOLA / **BILBO**

Ramon Jauregik eta Marcos Merinok, PSE-PSOEko idazkari nagusiak eta idazkariordeak hurrenez hurren, atzo agertu zuten prentsaurrekoan sozialisten ustez gobernu hirukoitzean parte ez hartzeko arrazoiak zeintzuk izan ziren.

Jauregik salatu zuen «edukin kontserbatzailea eta nazionalista» daukala berari eskeini zioten programak, «EAJrekin eraman dugun politikarekiko atzerapena erakutsiz».

Programaren edukin nazionalista hizkuntza eta hizkuntz politikaren arloan, kulturan eta hezkuntzan kokatu zuen.

Kultura eta EITB euskal nazio eraikuntzerako tresna bezala jotzen direla esan zuen Jauregik. Hain zuzen ere, erantsi zuen programa horretan EITB hizkuntz normalkuntzarako tresna bezala jotzen dela, komunikabide izaeraren gainetik. Jauregik adierazi zuen «zerbaiten tresna izatekotan nazioaren normalkuntza sozialerako tresna» izan behar lukeela.

Hezkuntzan, sozialisten ordezkariak salatu egin zuen bi hizkuntz eredu baino ez direla agertzen programan, diru laguntza politika okerra daramala eta ukatzen diola ikastolak sare publikoan sartzeari.

Ramon Jauregi eta Marcos Merino, hausturaz PSE-PSOEren bertsioa emanez. KEPA

✔ EE eta EAJren programan kultura eta EITB euskal nazio eraikuntzerako tresna bezala jotzen direla esan zuen Jauregik.

MALGUTASUN EZA BILERAN

Jauregik salatu zuen bi alderdi nazionalistek ez zutela onartu ezta «gehigarri batean gure desakordioak agertzea». Era berean gogorarazi egin zuen bide hori 1987.go hitzarmenean hiru gaitan erabili zela, «bitan EAJk eskatuta», nahiz eta adierazi eranskin bakarra eskaini zietela.

Kontseilaritza banaketari buruz, Jauregik esan zuen EEk eta EAJk «negoziazioak hausteko moduan» ipini zizkiotela gauzak. Bi alderdi nazionalisten proposamenean lehendakaria kanpoan geratuta, bion botu elkartuak zenbatzen ziren, eta gero D'Hont-en legea ezarri, «dena sozialistei kontseilaritza bat kentzearren», Jauregiren arabera.

Idazkari sozialistak eritzi zion EAJ behartuta sentitu zela ahultasun egoeran sozialistekin negoziatzera, baina berriro ere indarberrituta dagoela, Xabier Arzalluzek eurekin negoziatzearen aldeko jarrera azaldu arren, «gobernu nazionalista osatzearen aldeko joera» nagusitu dela jeltzaleen barruan.

Sozialistak negozitzeko prest segitu zuen, baina «gure jarrera ezagutzen» dutela gogorarazita, 3 baldintza jarri zien nazionalistei: malgutasunez jokatuta, gehigarriak onartzea; birnegoziaketak onartzea eta 5 kontseilaritza eta azpilehendakaritza gordetzea PSE-PSOErentzat. EEren jarreraren inguruan, sozialistak esan zuen ez daudela «nire arreta politikoaren ikusmira», halere ikuspuntu ideologikotik alderdi nazionalista bezala jokatzea leporatu zion.

Gaur ireki daiteke aldi berri bat EAEko Gobernua osatzeko

Z.Z / **BILBO**

Gaurko erabaki daiteke, EAJ eta EE bikotea noiz bilduko den EArekin, Gasteizen hirukote nazionalistak osatutako gobernurako negoziaketak hasteko.

Asteazken gauean EAJren Asanblada Nazionalak oneritzia eman zion EArekin negoziatzen hasteari, EBBk egindako proposamena onartuta. Atzo, berriz, EEren eta EAJren exekutibak gai hau aztertzeko bildu ziren, bakoitza bere aldetik baina harremanetan, EAJko iturrien arabera.

Hiru alderdion arteko bilkurak, negoziazioen etapa berri bati hasiera emango dio. Hain zuzen ere, jeltzaleek argi utzi zuten sozialistek aukera zutela negoziaketei berrekiteko, harik eta EArekin kontaktuak izan arte. Behin EArekin negoziatzen hasi ostean, «apurtutzat» joko zen aurreko negoziazio etapa.

Oraindik bilera egunaren berri zehatzik ez badago ere, asteburu hau amaitu aurretik izateko aukera haundiak daude. Juan Ramon Gebara eledunak «negoziaketa azkarrak» burutzeko asmoa erakutsi zuen, nahiz eta bizpairu egunetako atsedenaldia ere gomendatu.

GOBERNU HITZARMEN ERRAZA

Lehenengo bileraren emaitzen zain, ez dirudi zaila izango denik negoziazioak aurrera eramatea. EAk hauteskundeen hurrengo egunetik bertatik defendatu du hiru alderdiok osatutako gobernua, eta atzo bertan alderdi honetako iturriek berretsi egiten zuten EAJk eta EEk burututako programa esku artean zutela, ez zutela ikusten «arazo handiegirik» hitzarmena burutzeko.

Egibar jeltzaleen eledunak, Asanblada Nazionaleko tarte batean aipatu zuen ez zuela ikusten arazo haundiegirik sor zitekeenik gobernu nazionalista hirukoitza osatzeko. EAk erantsi zuen EAJ-EE bikoteak zehaztutako programa eskuartean izateak negoziazioak «azkartuko» zituela. Negoziazio hauetan egon daitekeen arazo handiena kontseilaritza banaketan sor daiteke. EEk eta EAJk hitzarmenduta dute PSE-PSOE ez den beste alderdiren bat gobernuan sartuz gero ez duela EEk baino kontseilari gehiago izango. Kontutan hartuta EAk EEk baino 3 parlamentari gehiago lortu zituela hauteskundeetan, gerta liteke desadostasunak sortzea.



Ardanza eta Arzalluz hizketan, Arteako Asanblada hasi aurretik. EFE

Martxoaren 30ean disolbatuko dute Nafar Parlamentua

A.U. / **IRUNEA**

Nafarroako Parlamentua martxoaren 30ean disolbatuko da, foru hauteskundeen data udal hauteskundeena bezala, maiatzaren 26rako finkatua gelditzen delarik. Berez hauteskundeak ekainaren 10ean izan behar zuten, baina Sanferminak direla eta, egokiago dirudi udal hauteskundeekin batera ospatzea.

Hau horrela izateko, Nafarroako hauteskunde Legearen 12 eta 13. artikuluak aldatu beharko dira. Puntu hau izan zen eztabaidagai atzo arratsaldean Aladino Colin, Lehendakaritza eta Barne kontseilariak talde parlamentarien ordezkariekin mantendutado bileran.

UPN, PSOE, PP, EE, EA eta CDSko ordezkariek aho batez onartu zuten Legearen aldaketa. Ondorioz, hemendik aurrera, eta lau urtetik behin, maiatzaren azken igandean izanen dira Nafarroan udal eta foru hauteskundeak. Orain Nafarroako Gobernuari dagokio Lege proiektua egitea eta Parlamentura pasatzea.

Halaber, hauteskunde kanpaina hamabost egunetara mugatzea erabaki zuten parlamentari taldeek. Euskadiko Ezkerreko parlamentari den Ramon Arozarenak EGUNKARIari adierazi zionez, berak hauteskunde kanpainako gastuak ere gutxitzea proposatu zuen, proposamen honek aurrera irten ez bazuen ere.

Garaikoetxeari egin entzuketen epaiketa apirilaren 10ean

BILBO

Carlos Garaikoetxea lehendakari ohiaren telefonoan ustez egin zirenen legez kanpoko entzuketei buruzko epaiketa apirilaren 10ean burutuko da Bilboko Justizia Epaitegian. Hala erabaki zuen atzo Euskal Herriko Epaitegi Gorenak. Bi aldeek aurkezturtako frogak onartzea eta euskara itzultzaile bat izendatzea ere erabaki zuen epaitegi honek. 1986an Garaikoetxeak Zarauzko bere etxeko telefonoan «zubi» bat egin zela ohartzean ezarri zuen salaketa eta kasua Donostiako Epaitegi Probintzialera igorri ondoren, fiskalak entzuketa telefoniko delitutzat azaldu zuen kasua. Donostiako fiskalak azaldu zuenez, entzuketa horiek Luis María Retolaza Gasteizko barne sailburu ohiak agindu zituen eta bost hilabeteko gartzela zigorra eta zazpi urte inhabilitazio eskatu zituen. Jose Antonio Goikoetxea Ertzaintzako sarjentuarentzat eta Javier Zumaldearentzat ere antzeko zigorrak eskatu zituen entzuketa horien egile izateagatik. Laguntzailetzat jo ditu fiskalak beste bi ertzain eta komunikabide sare ofizialeko zerbitzu burua.